

## PRENTSA OHARRA – NOTA DE PRENSA

### Azken orduko aldaketa Guggenheim Bilbao Museoa gaur gaueko Art after Dark egitarauan

Azken orduko aldaketa izan da gaur gaueko Art After Dark egitarauan: Michael Mayer DJ eta ekoizle alemana ezin izango da Guggenheim Bilbao Museora etorri eta antolatu bezala bere saioa egin, Islandiako sumendi baten erupzioak sortutako errauts hodeiak Europako hainbat herrialdetako hegazkin trafikoa itxiarazi baitu.

Guggenheim Bilbao Museoak sarreraren zenbatekoa itzuliko die hala eskatzen duten guztiei. Dena den, gaurko apirilaren 16ko saioa ez da bertan behera utzi eta ohi bezala 22:00etatik 01:00etara izango da Atrioan. Hortaz, artea eta musika uztartzen duen gaubela batez gozatu nahi dutenek, besteak beste, DJ Fra entzuteko aukera izango dute, hura baita Mayerren ordezkoa. DJ Fra Nitsa Club-eko DJ egoiliarra da, hots, Europako kalitatezko musika elektronikoa jartzen duen areto ospetsuenetako ohiko DJa. Fra munduko DJ eta ekoizle onenekin izan da kabinan —hala nola: Aphex Twin, Todd Terry, Carl Craig, Andrew Weatherall, Dave Clarke, Derrick May—, eta estatuko areto ezagunenetan izan da, baita Alemanian, Frantzia eta Belgikan ere.

Sarrera (18 urtetik gora): 12€ Publiko orokorra eta 8€ Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua.

Dagoeneko salgai leihatiletan eta [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) webgunean. (Nahitaezkoa izango da Museotik igarotzea sarrera gau horretan Fever klubera sartzeko beste bategatik trukatzeko.)

Bilbon, 2010eko apirilaren 16an

### Modificación de última hora en el programa Art after Dark que acogerá esta noche el Museo Guggenheim Bilbao

La sesión de Art after Dark que esta noche acogerá el Museo Guggenheim Bilbao ha sufrido una modificación de última hora. El DJ y productor alemán Michael Mayer no podrá acudir a Bilbao esta noche como estaba previsto, debido a la nube de ceniza volcánica procedente de Islandia, que ha obligado a cerrar los espacios aéreos de varios países europeos.

El Museo Guggenheim Bilbao devolverá el importe de la entrada a todos aquellos que lo soliciten, aunque, para aquellos que quieran seguir disfrutando de una noche de arte y música en el Atrio, la sesión de hoy viernes, día 16 de abril, se mantendrá de 22:00 a 01:00 horas. Mayer ha sido sustituido por DJ Fra, residente principal de Nitsa Club —uno de los más respetados clubes europeos dedicados a la música electrónica de calidad—. Fra ha compartido cabina con los mejores DJs y productores del planeta, Aphex Twin, Todd Terry, Carl Craig, Andrew Weatherall, Dave Clarke, Derrick May, por nombrar algunos, y ha pinchado en los mejores clubes nacionales, así como en Alemania, Francia y Bélgica.

Entrada (mayores de 18 años): 12€ Público General y 8€ Amigos del Museo. Aforo limitado. Ya a la venta en taquillas y en [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es). (Imprescindible pasar por el Museo para canjear la entrada por una para la Sala Fever la misma noche.)

Bilbao, 16 de abril de 2010